

MUSIKA HAMABOSTALDIA HERNANIN

Melise Mellinger biolin jolearen kontzertua gaur Chillida Lekun, Musika Garaikide zikloan

■ Gaurtik larunbatera sei kontzertu dira Musika garaikide zikloaren barruan, Chillida Lekun ■ Sarrerak 5 euro balio dute eta Tele Kutxan, Servi Kutxan eta www.quincenamusical.com web orrian hartu litezke edo Chillida Lekun bertan.

MUSIKA Hamabostaldia Hernanira dator gaur, eta datorren larunbata artean sei kontzertu izango dira Zabalaga baserriaren, Chillida Lekun. Melise Mellinger biolin joleak emanago du gaur kontzertua eta bihar, asteartea Nicolas Hodges piano jolea ariko da. Asteazkenean Sphota laukotea etorriko da Parisko Kontserbatorio Nagusitik; ostegunean, Janácek Laukote famatua ariko da, ganbera musikan talde onentsuena juzkatzen dena; ostiralean, Iñaki Fresan bari-tonoak emango du kontzertua, Juan Antonio Alvarez pianoan lagun duela; eta larunbatean Musika Hamabostaldian askotan jo duen talde baten txanda izango da: Pablo Sorozabal haize boscotek itxiko du Musika garaikide zikloa Chillida Lekun.

Kontzertu guztiak arratsaldeko 20:00etan dira eta 5 euro kostako da sarrera. Sarrerak aldez aurretik lortu nahi dituenak aukera badu, Tele Kutxan, Servi Kutxan edo baita internet bidez ere www.quincenamusical.com helbidean. Kontzertuetara Donostiatik joan nahi duenarentzat autobusak debalde aterako dira Gipuzkoa plazatik, arratsaldeko 19:15etan.

Museoa ikusteko aukera
Musika Hamabostaldiko Musika Garaikide kontzertuak Chillida Lekun izan dira azken 3 urteetan. Honek aldi berean musika entzun eta arte lanak ikusteko aukera ezin hobea eskaintzen die Zabalagaren ingurutzen direnei. □

Gaur, abuztuak 18

Melise Mellinger

Violin jole honek interpretatuko duen obra da Luigi Nonoren *La lontanaza nostalgica utopica futura*. Ensemble Rechercheren sortzailetako kidea Mellinger eta kontzertu asko eman ditu bere musikari ibilbidean. CD grabazio asko dituen violinjolea da Mellinger, besteak beste *La lontanaza nostalgica utopica futura* diskoa, gaur Chillida Lekun eskainiko duena. Gaurko kontzertuko soinu proiekzioaz Zuriñe F. Gerenabarrena eta Christophe Havel arduratuko dira.



Bihar, abuztuak 19

Nicolas Hodges

Londresko piano jole honek 19garren mendetik gaur arterainoko obrak dauzka errepertorioan eta gaurko kontzertuan Feldman, Finnissy, Stockhausen eta beste hainbat maisuren obrak joko ditu. Hodgesek diskografia zabala du, Hopkins, Boehmer, Sciarrino eta beste hainbat maisuren obraz osatua. Europako jaialdi nagusietan jo izan du, besteak beste: BBCko sinfonikoarekin, Filarmoniarekin edo etab. Bambergoko Sinfonikoarekin.



Arte lan bat Chillida Lekun bertan. Ezkerretara arbola artean Zabalaga baserria.

Bihar urtebete Chillida hil zela

BIHAR beteko da urtebete Eduardo Chillida eskultorea hil zela. Chillidaren bizitza Hernaniri oso lotua egon da eta bere obra ere bai. 1951ean Hernanin jarri ziren bizi Pilar Beltzuntze andrea eta biak, Floridak Vista Alegre etxearen. Tailerra hernanin izan zuen artista donostiarra eta bertan bizi zela egin zituen aurreneko erakusketa garrantzitsuak. Zabalaga baserria eta iguruko terrenoak 1982an erosizituen Chillidak eta 2000 urtean ireki zuen Chillida Leku museoa, bere lan mardul eta famatuaren erakuslea. Geroztik inguruko eta atzerriko bisitari asko inguratzen da Zabalagaren Chillidaren obra ikustera. Iazko irailaren 4an Hernaniko Ohorezko seme izendatu zuen Udalak Chillida, talde guztien oniritziarekin.

Argitarapen honen laguntzaile:

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Hernaniko kronikako laguntzaile:

ORAUNE PROMOZIOAK
ORAUNE PROMOCIONES

ETXE ONENAK, S.A.

**GARAJE ITXIAK
"OBLATOS" ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:
943 33.22.37



mikel armendariz

proiektu eta instalazio
elektrikoak

**Tel. 649 846 422
HERNANI**

AMEGAR

Etxe tresnak
Altzariak



Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

■ ERREMONTA -CASINO KURSAAL BURUZ BURUKOA

Eizagirrek ez zuen kontrariorik izan Lizasoren kontra eta finalurrekoetara pasa da


■ Eizagirrek finalurrekoan Zeberio IIaren kontra du larunbatean ■ Hirugarren semifinalista zein izango den ostegunean erabakiko dute Etxabek eta Ezkurra.

Eizagirrek	30
Lizasok	11

JON Eizagirre zarauztarra final erdietara pasa da, larunbatean Lizasorik 30-11 irabazita. Eizagirrek hasieratik kontrolatu zuen partidua eta oso erraz irabazi zion Lizaso donez-tebarri. Lizaso zen faboritoa partidua irabazteko, baina, eguna eta sorpresa eman zituen Eizagirrek Galarretan.

Final erditan hiru pelotarik jokatu behar dute. Bi zein diren jakina da: Zeberio II eta Eizagirre. Hirugarrena Etxabe edo Ezkurra izango da eta hori datorren ostegunean erabakiko da, Galarretan, 16:00etan hasita.

Promesen Bi-bitako gaur
Promesen Bi-bitako Txapelketan, bi partidu gaur, Galarretan 16:00etan hasita. □



Eizagirrek hasiera hasieratik kontrolatu zuen partidua.

GOIZUETAKO AMABIRJIN FESTAK



Herri bazkaria joan den urtean. Goizuetan urtero jende asko biltzen da Peñaren eguneko bazkarian.

Ezkonduen eta Umore Ona Peñaren eguna gaur Goizuetan

GOIZUETAKO Amabirjin festak egun haundiaren biziko du te gaur, Amabirjin laugarnean. Ezkonduen eta Umore Ona Peñaren eguna dute, eta goizean goizetik koadrila haundia izango da kalean, blusa berdea, zapi gorria eta galtza zuriak jantzita. Egundiko 15:00etan Ikastolako barrakan 200 bat lagun bilduko dira Peñakozen bazkarian, eta handik altxata, arratsaldean urteroko kalejira bereziari hasiera emango diote. Animatuenek blusak elkarri lotuko

dizkiote eta 2 orduko kalejirapoteoa egingo dute herriaren behoko aldean hasi eta goraino. Jendeak ura botako die 100 lagun inguruko koadrilari eta berak ahal duten lekuak zikinduko dute aldamenekoa. Ondoren hondarretan ondo pasa gorputzak, errekan busti bat eta trago bat hartu eta zezenak. Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin eta Igandea txarangarekin kalejira. 00:00 Kontzertua Gaztetxean.

EGITARAUA GAUR GOIZUETAN

12:30 Pelota partidua. Afizionatuen 4 1/2-ko partidua. Gero Goizeta-Arano.
15:00 Umore Ona peñaren bazkaria. Gero bostak aldera Igandea txarangarekin kale kale. Kalejira bukatu eta zezenak. Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin eta Igandea txarangarekin kalejira.
00:00 Kontzertua Gaztetxean.

BIHAR GOIZUETAN

12:00 Sagardo probaketa, Gipuzkoa eta Nafarroako sagardo onenekin eta Toka txapelketa, herriko plazan.
19:30 Dantzaldia Joxe Angelakian.
22:00 Afari herrikoia, Ikastolako tabernan. Janaria norberak eraman beharko du. Sagardoa, ardoa eta kafea libre. Gero ikastolan dantzaldia Joxe Angelakian.

■ XAKEA

Datorren xake denboraldia prestatzeko bilera dute bihar

HERNANIKO Xake Taldeak bilera deitu du datorren denboraldia prestatzeko. Bilera bihar da, arratsaldeko 20:00etan,

Xake Taldeko lokalean (Aristizabal kalean, Atseginegitik gora). Bilerara interesa duen edozein joan daiteke. □


HERNANIKO IBILBIDEAK



Zaltzateko erreka ingurua, Santa Barbara mendiaren atzean

■ 3 kilometroko buelta da ■ Zaitasun haundirik ez du, baina, pista irristakorra egon liteke zati batuetan.

SANTA Barbara mendiaren atzekaldean, Jauregi bailaran, bida erreka bat Zaltzate ize-nekoia. Gaurko ibilia erreka-ren inguruan egingo dugu. Buelta 3 kilometro inguru dauzka, eta badeatzpada, oinetako onak jantzita joango gara, leku batzuetan pista irristakorra egon daitekeelako.




Arrikarteko lepoa. Santa Barbara eskalatzeko parek gainean gelditzenean dira.

gurutzatzen duena. Hari segi eta Urniatik Lasartera dijan errepidea iritsiko gara, Mendi Okerren beste aldera. Han berriro ezkerrera hartzeta eta Arrikarteko lepoa iritsiko gara.

Oharra: Arrikarteko lepoa Hernanitik oinez joan behar badugu 5 kilometroko buelta kalkulatu behar da.

* Ibilbide hau Hernanin Zehar Dobera Euskara Elkarteko kultur koadernotik atarea da. Kultur koadernoen egilea Xabier Santa Cruz da. □



ZERBITZUAK

TELEFONOAK

► Taxiak:

943 550093

► Udalzaingoia:

943 333288

► DYA:

943 464622

► Anbulutorioa:

943 006666

► Tokalari animonoak:

943 331103

FARMAZIAK

►

Astelehena

► Egunez:

Correa Perkaiztegi 8

943 551933

► Gauez:

De Miguel Lasarte. Nagusia 32

943 361556

ASTEARTEA

► Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11

943 336077

► Gauez: Urbistondo Lasarte. San Francis 1B

943 366567